

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Asteartea, 2012ko urtarrilaren 3a. IX. urtea. 2.335. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)



Guztira 153 herritarrek parte hartu zuten Alegian egindako Urtezaharreko krosetan. PATXI RENOBALES

## Askok bukatu dute urtea korrika

2.049 heldu, gazte eta haurrek parte hartu zuten Tolosako, Villabona eta Zizurkileko, Alegiako eta Lizartzako Urtezaharreko krosetan, gero eta zabalduago dagoen ohiturari jarraituz **6-7**

## Bilbora joateko deia, Urtezaharreko eta azken ostiraleko elkarretaratzetan

Egin Dezagun Bideak prentsaurrekoa egin zuen Villabonan, eta zalantzan daudenei hilaren 7ko manifestaziorako gonbitea luzatu zieten **2**



Jende ugari bildu zen Villabonan, prentsaurrekoa eskaintzeko. A. IMAZ

## Kontseiluak Hirukideren hizkuntza plangintza nabarmendu du

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluaren seigarren hezkuntza jardunaldian Tolosako ikastetxea zoriondu du, besteak beste, adimen emozionala lantzeagatik **3**

## Ikusmira sortu du X. Pilota Topaketak eta jende asko izan da harmailetan

Antolatzaileen hitzetan «giro oso ona» izan dute txapelketan; jende asko bildu da finaleko bost partidak ikusteko **5**

## Eguberrietako XXX. Shanti Txapelketa azken txanpan sartu da

Finalerdiak jokatu dituzte, gaur, Tolosako Usabal kiroldegian; bihar hirugarren eta laugarren posturako partidak, eta igandean finalak **5**

## Otaegik eta Otañok aurre hartu die beteranoei Asteasun

Zizurkildarra eta ibartarra Urrezko Aizkoraren kanporaketan lehiatu ziren Olasagastik eta Txapartegik osatutako bikotearen aurka, eta iraupen proban lortu zuten garaipena **7**

# Urtarrilaren 7ko manifestazioak atxikimenduak biltzen jarraitzen du

Amasa-Villabonako Egin Dezagun Bidea ekimenak zalantzan dauden herritarrak Bilbora gonbidatu ditu

**Asier Imaz**

Egin Dezagun Bidea ekimenak urteari deialdi eta aldarrikapenekin eman zien amaieran, euskal preso eta iheslarien eskubideen alde. Eskualdeko herritarrak azken ostiralean eta urteko azken egunean kalera irten ziren, besteak beste, urtarrilaren 7ko manifestaziora joango direla esateko, eta herritarrak bertara gonbidatzeko.

Amasa-Villabonan, urte amaierako manifestazioa baino lehen, prentsaurrekoa antolatutako Egin Dezagun Bidea ekimenak. Bearzana frontoian, ehun lagunetik gora billabonatar elkartu ziren iragan ostegunean. Herriko presoekin elkarrekin eta lagunak bertan izan ziren, baita Galder Azkue alkatea ere.

Maialen Abaigar zinegotzi ohiak irakurri zuen prentsaurrekoko idatzia. Lehenik eta behin, 2011. urtearen balantze laburra egin zuen: «Aro politiko berri bati ateak parez pare ireki dizkion urte amaitez da. Konponbide demokratiko bat eraikitzeko oinarri sendoak jarri dira 2011 honetan. Honek, berebiziko ilusioa eta itxaropena piztu du euskal jendartearengan, eta gehiengo zabal batek agertoki berri hau finkatu eta betikotzeko pauso eta erabaki ausartak eskatzen ditu. Horien artean, eta lehentasun gisara, euskal preso politikoen eskubideak behingoz errespetatuak izateak».

Ondoren, Egin Dezagun Bide-

ak aldarrikatzen dituen neurriak zehaztu zituen Abaigarrek: «Sakabanaketarekin amaitzearen beharra; gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten presoak askatzea; bizi osorako zigorraren aplikazioa ahalbideratzen duen 197/2006 doktrina bertan behera uztea eta zigorraren 2/3ak eta 3/4ak bete dituzten presoak kaleratzea».

Aurrera begira jartzeko unea dela ere azaldu zuten Villabonatik, eta konponbide demokratiko eta justu bat eraikitzeko ezinbestekotzat jo zuten «euskal preso politikoen eskubideen auzia konpontzea». Lehenik, «muturreko egoerak altxatuz», eta ondoren, «gatazkaren ondorio guztiak gainditzeko urratsak eginez, preso eta iheslari guztiak etxera itzuliz».

Frantziako eta Espainiako estatuei eskakizun zehatza egiten die Egin Dezagun Bidea ekimenak: «Norabide horretan inplikatzeko eta euskal jendartearen gehiengo zabal baten nahiari so egitea».

Idatziaren amaieran Gabonetan etxean egongo ez direnak gogoratu zituen Maialen Abaigarrek, «haien askatasuna behar baitugu gu askeago izateko» esanaz.

## «Mugarria», Bilbon

Eskualdean asteburuan burutu diren ekitaldien ardatz nagusia urtarrilaren 7ko manifestazioa izan da. Bai azken ostiraleko elkarretaratzeetan, eta baita, Urtezaharreko mobilizazioetan ere, herritarrek Bilbora joateko beharra azaldu dute, «kolosala» izateak duen garrantzia azpimarratuz. Euskal presoekin egoera konpontzeko, ezinbestekotzat jotzen dute herri mugimendua. Horregatik, urtarrilaren 7an kalera irtetzea



Amasa-Villabonako Egin Dezagun Bidea ekimenak prentsaurrekoa eman zuen ostegunean. A. IMAZ

eskatu dute han eta hemen. Villabonan honela azaldu zuten zitaren garrantzia: «Mugarria izan nahi duen mobilizazio orokorra izatea nahi dugu. Denok dugu lekua, autobus kopurua bikoizten ari gara, 10.000 atxikimendutik gora jaso ditugu [www.kolosalaizangoda.info](http://www.kolosalaizangoda.info) webgunean, eta herrietan elkartasun olatu ikaragarria sortzen ari da. Datoren egu-

## Espetxe politika aldatzea eskatu du Egin Dezagun Bidea ekimenak

## Urteko azken egunean elkarretaratzeak eta manifestazioak egin dituzte hainbat herritan

notan, oraindik atxikimendua eman ez dutenak eta Bilbora joateko zalantzatan direnak konbentzitu dituzten. Urtarrilaren 7an, 17:30ean, denok egon behar dugu La Casillan. Kaleak bete behar ditugu kartzelak hustutzeko».

Anoetan, Altzon, Zizurkilen, Ibarren, Alegian eta Berrobin, besteak beste, manifestaziora joateko deialdiarekin bat egin zuten 2011. urteko azken egunetan. Herrian elkarretaratze eta mobilizazioak antolatu zituzten, eta ostegunean Villabonan egindako gonbitea errepikatu zuten euren herrietan.

Ibarren abenduaren 31n urteroko manifestazioa egin zuten 150 lagun inguruk. Alegian, 140 inguru elkartu ziren egun berean, kalean preso eta iheslarien eskubideen aldeko aldarria zabaltzeko. Zizurkil eta Villabona artean ere manifestazioa egin zen, eta Anoetan, Altzon bezala, elkarretaratzea egitea erabaki zuten urteko azken egunean. Anoetarrek, ordea, Irurakoekin batera bi herriak elkartzen dituen zubian beste elkarretaratze bat egin zuten ostiralean.



Alegian 140 lagun elkartu ziren abenduaren 31n. HITZA



Anoetarrek eta irurarrak azken ostiraleko elkarretaratzean. HITZA



Urteko azken egunean elkarretaratzea egin zuten Anoetan. HITZA



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

# Erreketako karramarroa



## Bioaniztasunetik

Jon Ander Galarraga

Biologoa

Erreketako karramarroa benetan animalia kuttuna izan da 1950eko hamarkadan jaiotako edozeinekin Langaurrera Txupitxutik igotzen bazarete, «gaztea nitxoala, hor leno kangerejuk harrapatzen nizkin», eta «harrie jaso ta... zissst! juten ituen zitzu baten» esan gabe ezingo da egon!

Nostalgia ote?

Txupitxu, Alegiatik Langaurrera igotzen den bideatariko bat da, alboan errekatxo polit bat du eta gaur egun, biologoek kontsultatu gabeko obregatik, lokazti handi bat bihurtu da.

Txupitxun eta gure eskualdean ugaria omen zen erreketako karramarroa, nahiko zaila omen zen ehizatzen, baina tomatearekin oso ona geratzen omen zen afaltzeko.

Beranduagoko hamarkadetan, ordea, gainbehera egin zuen karramarro xarmangarri honek, diotenez karramarro amerikarra, *procamburus cklarkii*, gure erreketan sartu zelako omen zen.

Karramarro amerikarra handiagoa eta jatun hobe omen zen eta erreketako karramarroaren arrautzak jaten omen zituen. Gainera, karramarro amerikarrak *aphanomyces astaci* zeritzonek onddo bat ekarri omen zuen bere barrenean, non onddo honen milaka erreketako karramarro gaixotu eta hil omen zituen.

Karramarro amerikarrari asko atsegin zitzaien urzupian habia egitea eta ibai azpiko lur eta lokatz mordera arretzen zuen eta hau guztia gutxi balitz, baratzek erasotzen omen zituen eta bertako baratzkiak jan... ez zen makala lehengusu amerikarra!

Baina biologoa naizenez eta biologoek asko atsegin zaigunez gauzei lauzpabost buelta ematea, goazen erreketako karramarro

maitearen desagertuari buelta batzuk ematera.

Izan ere, erraza baita Ameriketako karramarroari soilik errua botatzea geure buruari bota aurretik.

Lehenik eta behin ulertu behar duguna, Ameriketako karramarroa geuk ekarri genuela haztegiatan hazi eta komertzializatzeko, maskota moduan ere erabili omen zen, baita arrantzarako amu bezala.

Esan ere, Ameriketako karramarroa etorri aurretik ere, gure erreketako karramarro maitea jada gainbeheran zegoela hainbat arrazoiengatik, garrantzitsuena, betikoa: bere bizitokiaren edo habitaten galeragatik.

Pentsa ezazue, 1980ko hamarkadan, Tolosaldeko eskualdean industrializazio sakon batean sartuta geundela eta ibai eta errekek izan zirela industria hauek botatako zikinkeria xurgatzen zuten lehenengoak.

Beste arrazoi bat erreketako karramarroa tomatearekin jatea da. Inongo kontrolrik gabe bizidun bat ehizatzen bada, bere populazioak zitzu bizian egiten du gainbehera.

Azkenik, karramarro amerikarrak ere kulpia handia izan zuen eta baita berak ekarritako onddo madarikatuak ere, baina betikoa, karramarro amerikarra ez zen Ameriketatik bera bakarrik etorri.

Kaltea eginga dago, orain kaltea konpontzea falta zaigu, nahiz eta Txupitxuko obrak ikusita... konpontzeko asmo handirik ez den ikusten.

Inork kalte hau konpontzen hasi nahi badu bere kasa, egin dezala edo antolatuta ditzala bere herriaren erreketan zeharreko txangoak ea erreketako karramarroa edo amerikarra topatzen duen. Izan ere, oso gutxi baitakigu animalia honen bizitokiari buruz, informazio oro oso baliagarria izango da.

Arrantzalea bazara eta arrantzan erreketako karramarroa dagoen lekuan bazabiltza, amu, pisu eta pitak esteriliza itzazu beste erreka batera joan aurretik, honela onddoa zabaltzea eragotziko duzu.

Guraso edo irakasle bazara, kontaktatu etxean eta ikastetxean karramarro hauen istorioak, jakin dezatela gure txikiak, animalia gorri eta itsusi honek ere bere lekutxo duela gure inguru honetan.

*bioaniztasunetik.com*-ek bizidunetz bateriko 2012 urte bikain bat opa ditzu. Mila esker urte bat gehiago hitz hauen bestaldean egoteagatik!

# Hirukide zoriondu du Kontseiluak adimen emozionala lantzeagatik

‘Hezkuntzaren garrantzia euskararen jabeakuntzan eta garapenean’ bilkuran egon zen ikastetxea

Rebeka Calvo Tolosa

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak seigarren aldiz egin zuen pasa den hilean hezkuntza arloko jardunaldia. Aurtengoan *Hezkuntzaren garrantzia euskararen jabeakuntzan eta garapenean* goiburupean egin zuten jardunaldia.

Bertan, alde batetik, zenbait ideia garatu zituzten, eta besteetik, esperientzia praktikoa ere izan zuten. Azken atal honetan, Tolosako Hirukide ikastetxeak parte hartu zuen, Lakuntzako ikastetxe publikoarekin, eta Hendaiako ikastolarekin batera. Zentzu honetan Hirukidekoak zoriondu zituzten «kimen asko eta sekuentziatuak izateagatik, adimen emozionalean lantzeagatik,

baita oinarri sendoko eta ikastetxe estamentu guztiak biltzen dituen hizkuntza plangintza osatua izan eta martxan» edukitzeagatik, «emaitza gero eta hobeak lortuaz», gainera.

Ondorioak

Horiek horrela, bilkuran, besteak beste, Paul Bilbao eta han bildutako adituek 0-3 urte adin artean haurrak hizkuntzaz jabetzen hasten direla azaldu zuten. Honen ondorioz, «erraztasun handiagorekin bereganatzen dute euska-

ra etxeko hizkuntza ez den kasuetan ere», esan zuten. Adin horretatik aurrera, beste hainbat mekanismok eta alde psikologikok parte hartzen dutela aipatu zuten, batez ere, ikaskuntzaz eskuartzen den hizkuntzaren irakas-kuntzan. Adinean zenbat eta aurrerago hasi euskara irakasten, orduan eta konplexuagoa izango zaio hizkuntza bereganatzea haurrari. Horra hor, «0-3 urteko haurren euskalduntzea hain indartsu azpimarratzako arrazoiak», esan zuten.



Hirukideko hizkuntza normalizatzarako arduraduna, Ane Lasa (erdian). HITZA

# Ekitaldiak, Erregeen zain egoteko

## ↓ Egitaraua

### GAUR, ABENDUAK 3

■ **Larraul.** Ines Bengoa ipuin kontalariaren saioa 17:00etan, liburutegian.

■ **Tolosa.** *Olentzero eta Iratxo-en jauntxoa* filma 17:00etan, Leidor aretoan.

■ **Irura.** Gaztelekuko kide berrie ongi etorria egingo diete 17:00etatik 19:00etara, eta ondoren, askaria banatuko dute. Era berean, 17:00etatik aurrera 2 eta 12 urte bitarteko haurren-

tzat jolasez bateriko arratsaldea izango dute, ludotekan.

### BIHAR, ABENDUAK 4

■ **Alkiza.** Jateko hainbat masa egiten ikasteko tailerra, 10:00etatik 12:00etara kultur etxean.

■ **Irura.** 17:00etatik 19:00etara mahai tenis txapelketa egingo dute, Gaztelekuan, batetik, eta bestetik, 17:30ean, xake partidak izango dira, plazan.



## Tolosako Udala

IRAKARRIA

Tolosako Gobernu Batzarra, 2011ko azaroaren 25ean egin zuen bilkuran, behin betiko onespina eman zion "20.1 Amarotz Paper-Fabrika" eremuko borondatezko birpantzelazio proiektuari. (ORUBIDE, SA-k sustatutakoan).

Ebazpen hori behin betikoa da eta administrazio bidea amaitzen du. Nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezake interesatuak Euskadiko Justiziako Auzitegi Nagusiak Bilbon duen Administrazioarekiko Auzitegiak Salan, erabaki hau argitaratu edo, kasua bada, jakinarazi eta biharamunetik bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertze hautazko errekurtsoa aurkezteko Udaltzatari, argitaratu edo, kasua bada, jakinarazi eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori egingez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsoak aurkeztu harik eta berraztertzearen berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte.

Tolosa, 2011ko abenduaren 21an.

ALKATEA.

Ibai Iriarte San Vicente.

**Tolosa**



**TOLOSA KANTARI BEREZIA**

Urteazhar egunean, hileko azken larunbat guztietan bezala, Tolosa Karrantza Berezia kantuan ibili ziren herriko kaleak alaitzen. Urteko azkena, ordea, berezia egin zuten. Jende asko elkartu zen euskal kantuak abesteko, eta horien guztien artean etorkinak ere euskaraz abesten ari zirelako.

**Ibarra**



**BERTSO JAIALDI BIZI-BIZIA**

Azken urteetako ohiturari jarraituz, Ibarren bertso jaialdia antolatuta zuten abenduan, Amala Agirre, Arkaitz Estiballes, Sebastian Lizaso, Xabi Paia eta Alala Martin aritu ziren bertsoetan. 100 lagun inguru elkartu ziren Belabietako kiroldegian, eta saioa bizi-bizi joan zen, umorea nagusitu zelarik.

**Alegia**



**EIBAR ETA INTXURRE LAGUN ARTEAN**

Urteari amaiera emateko, larunbat goizean, lagunarteko futbolaritza jokatu zuten Alegia eta Intxurre futbol zelaian. Intxurrek, Bigarren B mailan jokatu duen Eibar taldea hartu zuen etxean. Ezin hobeto moldatu ziren bi taldeak zelaian, eta partidako emaitza izan zen guri berarekoa. Ondoren, lagun artean bazkari ederrean egin zuten bi taldeetako kideek.



Atzo aratsaldean alebin mutilen partida jokatu zen.

**Shanti Txapelketa partidaz partida aurrera doa**

Gaur finalerdietako lau partida jokatu dira; asteazkeneko partidaren ondoren, finalak igandean izango dira. 11:30ean, alebin mutilen txandak izango dira. Arratsaldean, 15:00etan hasita, benjamin mutiak 2002 izango dira eta ondoren, benjamin mutiak 2003 arloko dira. Bihar, hirugarren eta laugarren postuak jokatuko dituzte. 10:00etan, alebin mutilak arloko dira; 10:45ean, alebin neskek; 11:30ean, benjamin mutiak 2003 eta 12:15ean, benjamin mutiak 2002. Igandean, 09:30ean emango diote hasiera finalako partidei, eta benjamin nesken txanda izango da 10:15ean, benjamin mutiak 2003; 11:00etan, alebin neskek; 11:45ean, benjamin mutiak 2002 eta 12:30ean, alebin mutiak izango dira. 15:30ean, oharrekin hasiera alebin nesken partiduak egongo dira.

**E. Maiz** Tolosa

Eguberrietako XXX. Shanti Txapelketa azken txanpan sartu da. Asteazkenean 2003an emango zuten hasiera, eta urtarriaren San Isidoroan, jokatuko dira finalak. Atzo bigarren faseko lau partida jokatu zituzten goizez eta arratsaldean. Gaur, hilak 3, finalerdietako jokatuko dituzte. 10:00etan emango diote hasiera alebin nesken partiduak.

Eskerrik asko beste urtebetez guganako konfiantza erakusteagatik.

2012an ere gogoz arituko gara Euskal Herriko bazter gurrietako ekolozien produktuak ezagutarazten.

**Urte berri on!**

www.euskalherriko plaza.com

**Tolosa / Lizartza**



**URTEA HASTEKO MENDIRA**

Euskal Herrian ohitura handia dago mendira joateko, eta askok, 2012. urteari hasiera horrela eman diote. Eskualdean, Txindoki, Herriño, Uzturre, Loitzoa... mendiak aukeratu dituzte mendizaleek. Lizartza, urtero bezala, Otsabio mendia ligo zuten. Beste askok, ordea, parranda eginez eman zioten ongi etorria urte berriari.

**Ikusle asko izan da X. Pilota Topaketako finaletan**

Harmailak lepo bete ziren Gabonetako X. Pilota Topaketako finalako bost partidak ikusteko.

**Enertiz Maiz** Alegia

Gabonetako X. Pilota Topaketako finalak ostralean izan ziren Alegia pilotalekuan. Harmailak jende lepo bete ziren finalako bost partidak ikusteko, eta «giro oso ona» izan zela adierazi dute antolatzaileek. 52 pilotarik abiatu zuten txapelketa, eta horietatik 20 iritsi dira finalera. Ikusmin handia sortu zuten finalako partidei.



Kadeteetan, Larrea eta Irizar izan ziren rabazleak.

ren aurka. Azken hasek lortu zuten garaipena poltsikoratzea. Alebinen mailan, Martin Lakuntza eta Oier Zubeldiak irabazi zuten partida, eta aurkari zituzten Ioritz Ugarteandia eta Lander Karreva. 2 lanotan geratu ziren. Infinitetan, Jon Luuzuriaga eta Enaitz Alzpitarte iritsi ziren 12. Otamendi bikotea 6an utzi.

Kadeteen mailan, Eñaut Larrea eta Jon Irizar bikotea iritsi zen garaipena eskuratzera, aurkari zituzten Unai Ezmendi eta Beñat Beloki, 4 lanotan irazi. Sariak ematen hiru pilotari iritu ziren. Ekaitz Saralegi pilotari profesionalarekin batera, Alegia-ko Arkaitz eta Ibañeta pilotariak irabazi zuten garaipena.

**Finalako emaitzak**

Aurrebenjaminak	11
Rojas-Benavente	12
Irisatorre-Artola	
Benjaminak	5
Zubeldia-Azurtza	12
Galartza-Altuna	
Alebinak	12
Lakuntza-Zubeldia	2
Ugartemendia-Karrera	
Infantiak	12
Luzuriaga-Alzpitarte	6
Altuna-Otamendi	12
Kadeteak	6
Larrea-Irizar	12
Eizmendi-Beloki	4



**Merkataritzak bizia ematen du**

**Tolosa & Co**





Villabona eta Zizurkilgo krosetan korrikalari gaztetxoak probaren hasieran. HITZA

# 2011 helmuga zeharkatuz amaitu dute herritar askok

Guztira, 2.049 korrikalarik parte hartu zuten Tolosako, Villabona eta Zizurkileko, Alegiako eta Lizartzako krosetan

Arroyo eta Arbillaga, Garzia eta Ibarbia, eta Garmendia eta Dorronsoro, irabazleak

## Itzea Urkizu

Ohiturari jarraituz, 2011. urtea kirola eginez agurtu zuten, pasa den larunbatean, eskualdeko hainbat herritarrek. Tolosan, Villabonan eta Zizurkilen, Alegian eta Lizartzan antolatutako krosetan, guztira 2.049 haurrek, gaztek eta helduk parte hartu zuten.

Tolosan, Samaniego-Orixe ikastetxeak antolatutako XIV. Elkartasun Krosa 15:30ean hasi zen gaztetxoekin; 608 neska-mutilen eman zuten izena parte hartzeko. Helduen txanda, berriaz, 16:30ean izan zen. 611 gizon-emaumekek parte hartu zuten, eta sekula baino korrikalari gehiago mozarrotu ziren herri lasterketarako. Urteko kirolari onenaren saia jaso berri duen Unai Arroyo izan zen lehena gizonezkoetan, eta emakumezkoetan, berriaz, Amaia Arbillagak irabazi zuen.

Elkartasun Krosetan bildutako dirua, Kolonbiako Guabas erre-

karen inguruan bizi den komunitateko Biblio-mula proiektua jarraitzeko erabiliko dute.

Villabona eta Zizurkilekoan ere, parte hartzea nabarmena izan zen, Zurbeltz eta Urkamendi elkarteek antolatutako Urtezharreko XXVIII. lasterketan. Guztira, 632 korrikalari aritu ziren. Aitziber Ibarbia eta Endika Garzia izan ziren aurrenak.

Alegiarrak ez ziren gutxiago izan, eta 153 herritarrek parte hartu zuten Urtezhare eguneko krosetan. 12 urtetik gorako parte hartzaileak 96 izan ziren, eta 57 neska-mutil aritu ziren gaztetxo-entzen saioan. Mari Karmen Dorronsoro eta Eneko Garmendia izan ziren azkarrenak.

Azkenik, Lizartzan ere antolatutako zuten San Silbestre eguneko proba. Guztira 45 parte hartzaile izan ziren, eta sari banaketaren ondoren, txokolate beroa eskaini zuten Otsabio kirol elkarteak antolatzaileak.



Arbillaga, Vazquez eta Muñoz, lehen hiruak Tolosan, emakumezkoetan. I.G.



Arroyo, Egia eta Regillaga, hiru lehenak gizonezkoetan, Tolosan. I.G.

## ↓ Sailkapenak

### TOLOSA

#### Benjaminak

1. Danel Irazustabarrena
1. Izarne Sarasola

#### Alebinak

1. Iñaki Beitia
1. Izaro Perurena

#### Infantilak

1. Luis Mari Garikano
1. Ainhoa Garikano

#### Beteranoak

1. Enrique Piedra
1. Pili Esnaola

#### Gizonezkoak

1. Unai Arroyo
2. Lander Egia
3. Aitor Regillaga

#### Emakumezkoak

1. Amaia Arbillaga
2. Oihane Vazquez
3. Maialen Muñoz

### VILLABONA-ZIZURKIL

#### Benjaminak

1. Kepa Otegi
1. Elena Rodriguez

#### Alebinak

1. Julen Alberdi
1. Sara Iriarte

#### Infantilak

1. Manex Iradi
1. Olatz Mitxelena

#### Kadeteak

1. Xabier Zuriarrain

#### Jubenilak

1. Aitor Gisasola

#### Beteranoak

1. Mikel Rodriguez
1. Lurdes Colomo

#### Gizonezkoak

1. Endika Garzia
2. Imanol Rojo
3. Hassan Ait Chaou

#### Emakumezkoak

1. Aitziber Ibarbia
2. Lurdes Colomo
3. Leire Etxezarreta

### ALEGIA

#### Aurrebenjaminak

1. Egoi Irazustabarrena
1. Uxue Agirrezabala

#### Benjaminak

1. Markel Arruabarrena
1. Uxue Balerdi

#### Alebinak

1. Lander Karrera
1. Larratiz Balerdi

#### Infantilak eta kadeteak

1. Ander Garin
1. Agume Zubillaga

#### Gizonezkoak

1. Eneko Garmendia
2. Aitor Mendia
3. Ander Arandia

#### Emakumezkoak

1. Mari Karmen Dorronsoro
2. Agurtzane Garmendia
3. Jaione Olano

## ↓ Parte hartzaileak

# 2.049

■ Eskualdeko 2.049 korrikalarik parte hartu zuten krosetan.



Alegiako krosetako irabazleak. HITZA



Lizartzan 45 lagunek parte hartu zuten lasterketan. HITZA



Kolonbiako produktuak eskuragarri izan ziren Tolosako Zerkausian. I. GARCIA

## Otaegik eta Otañok iraupen proban irabazi dute kanporaketa

Olasagasti eta Txapartegi mendean hartu zituzten, Urrezko Aizkorako Asteasuko kanporaketan

**I. Urkizu** Asteasu

Iraupen proban minutu eta erdiko alde ateraz, Unai Otaño eta Joseba Otaegi Urrezko Aizkorako kanporaketarako sailkatu ziren. Iñaki Azurmendiren eta Aitzol Atutxaren aurka izango dute norgehiagoka, multzoko lehen postua lortzeko.

Saioko azken neurketan lortu zuten eskualdeko aizkolariek garaipena, iraupen proban hain zuten. Ekinaldi honetara 8 segundoko atzerapenarekin sartu ziren arren, Olasagasti eta Txapartegi aurkariek minutu eta erdiko alde ateraz zieten azkenean.

Lehen proban berdin dute gera-

tu ziren bi bikoteak, kolpekako saioan 45 ontzako enborra 35 kolpetan erdibitu baitzuen bikote bakoitzak.

Egin beharreko bigarren proba, berriz, zutikakoa izan zen. Kana erdiko enborra moztu behar izan zuten, zutik jarrita. Beteranoak nagusitu ziren proba honetan, eta tarte nabarmena aterazieten Otaño eta Otaegiri: 36 segundo.

45 ontzako bi enbor moztu behar izan zituzten hurrengo proban, eta eskualdeko aizkolariek azkarrago aritu ziren kasu honetan, minutu eta 29 segundotan lanak amaituz; Olasagastik eta Txapartegik 2 segundo gehiago behar izan zituzten.

**Amaiera erabakiorra**

Oreka nagusi izan zen Asteasuko frontoian jokaturako kanporaketan, azken proba bitarte. Beteranoak 8 segundoko aldearekin ekin zioten iraupen probari, bai-

na ez zuten aldeari eustea lortu. Bikote bakoitzak sei kana erdiko enbor ebaki behar izan zituen. Unai Otañok eta Joseba Otaegik 8 minutu eta 20 segundo behar izan zituzten lanak osatzeko, eta Olasagasti eta Txapartegi beteranoek, berriz, 10 minutu eta 20 segundotan amaitu zuten proba.

Horrela beraz, 18:55eko denborekin amaitu zuten norgehiagoka aizkolariek gazteenek, eta 20:08 segundotan, berriz, Olasagastik eta Txapartegik.

**Urtezharreko torneo**

Urrezko Aizkorako kanporaketa-rekin batera, Urtezharreko torneo ere jokatu zuten, pasa den larunbatean, Asteasun. Irazu zizurkildarrak eta Larrañaga zepitiarrak osatutako bikoteak irabazi zuten norgehiagoka, Alkizalete II.a asteasuarraren eta Murgertza III.a mutrikuarraren aurka. 1:52ko alde aterazieten.

o tolosaldean@hitza.info

## Bengoetxea VI.a eta Apraiz, sailkapeneko hirugarren postuan

22-13ko emaitzarekin amaitu zuten, Aritz Lasa eta Zubietaren aurka Astelenan jokaturako partida

**I. Urkizu** Leizta

Urteberri egunean 22-13ko emaitza lortuta, Binakako txapelketako hirugarren postuan dira Oinatz Bengoetxea eta Alexis Apraiz. Aitor Zubietak min hartu zuten partidako lehen minutuetan, eta erabakiorra izan zen; ezker eskuarekin soilik jokatu zuten partida osoa. Era berean, ordea, Oinatz Bengoetxeak orain arte

txapelketan jokatu duen partidarik onena jokatu zuen, eta defentsan ondo aritzeaz gain, Aritz Lasaren asmoei aurre hartu zien pilotari leitzarrak. Aurkariek utzitako aukerak ondo probesten asmatu zuten Bengoetxea VI.ak, eta partidaren erritmoa markatu zuten, pilotari abiadura emanen. 10 tanto egin zituen leitzarrak, eta sakez, berriz, beste bi. Norghegiagokan akatsa bakarra izan zuen Oinatz Bengoetxeak, 20-10ekoaren; gantxo batekin kontrakan txara bidali zuen pilota.

**Barriola eta Irujo indarrean**

Abel Barriolak eta Juan Martinez de Irujok osatutako bikotea, berriz, Binakako txapelketako sail-

kapeneko bigarren postuan da; ez dute oraindik partidarik galdu, eta hiru puntutan berdinduta daude Olaizola II.a eta Beroize-

**Abel Barriolak eta Juan Martinez de Irujok ez dute oraindik partidarik galdu**

kin. 22-5eko emaitzarekin amaitu zuten, pasa den abenduaren 30ean Etxebarrin jokatu zuten partida.

Hurrengo jardunaldian, Olaizola II.a-Beroizen aurka jokaturiko dute Barriolak eta Irujok. Bengoetxea VI.a eta Apraiz, Titin III.a-Merino II.aren aurka ariko dira.

### Urteurren eta hilberriak

**ESKELAK**

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



- XXX. URTEURRENA -

**PAULO GARIALDE JAUREGIZABAL**

1982ko urtarrilaren 2an Tripe A-k eraila.

- Agur eta ohore-

**Ez dugu ahaztuko**

**Ez zaitugu ahaztuko**

Zure emaztea eta seme-alabak

Alegian, 2012ko urtarrilaren 3a



**INAXI APALATEGI DORRONSORO**



**Goian bego**  
Elduaingo Udala

Elduainen, 2012ko urtarrilaren 3a



GOIZA	EURIA
ARRATSALDEA	LAINOTUTA
BEROENA	13°
HOTZENA	12°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.M.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leitzaldea:** 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:**

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Hernialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

**Programazioa**

**28 KANALA**

- 12:30. Altxor txokoa.
- 13:00. On ein!
- 13:30. Musti.
- 14:00. Kafe t'ardi Alkiza.
- 14:30. BIT.
- 15:00. Berbetan.
- 15:30. 28 Klip.
- 16:00. Walker Aduna.
- 16:30. Ikusmira.
- 17:00. Ikusten.
- 17:30. Estetika.
- 18:00. Ur eta lur.
- 18:30. Bizitegia.
- 19:00. Gipuzkoa kultura.
- 19:30. Erosi eta ikasi.
- 20:00. Bideoklipak.

(\*16:30etik 20:00etarako tartea lau orduko errepikatuko dute)

**TXOLARRE IRRATIA**  
(107,6 edo [www.txolarre.org](http://www.txolarre.org))

- 11:00-13:00. Tolosaldeko Ahotza albistegia eta magazina: Elhuyar fundazioak eskaintako zientziari buruzko Quark saioa, besteak beste. ■ 13:00. Lehiaketa eta disko eskiniak.
- 13:30. Info 7ko albistegia.
- 14:00. Tolosaldeko Ahotza albistegia. ■ 16:00. Txingurri ahotzak saioa. ■ 17:00. Kabitik Plaza. ■ 18:00-20:00. Tolosaldeko Ahotza magazina eta albistegia. ■ 20:00. Info 7ko albistegia. ■ 21:00. Zuria Beltzezaioa.

**Agurak**

**AGURRAK**

943-65 56 95 [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

●●●●● **agurak**

**Agenda**

**DEIALDIK**

- **Tolosa. Esna-bidean** izeneko erakusketaren barruan gaur, *Amaren egoera emozionala edoskitze garaian* izeneko hitzaldia, Nerea Mendizabal psikopedagogoaren eskutik, 18:00etatik aurrera Aranburu jauregian.
- **Larraul.** Ines Bengoa ipuin kontalariaren saioa 17:00etan, liburutegian.
- **Irura.** Gaztelekuko kide berriei ongi etorria egingo diete 17:00etatik 19:00etara, eta ondoren, askaria banatuko dute. Era berean, 17:00etatik aurrera 2 eta 12 urte bitarteko haurrek jolasez beteriko arratsaldea izango dute, ludotekan.
- **Tolosa.** Atsedena aisialdi taldearen Inauterietako Astelenitako konpartsan parte hartu nahi dutenek 650 87 97 04 telefono zenbakira deitu behar dute.
- **Tolosa.** Kirikiño aisialdi taldeak 25 urte bete ditu, eta data ospatzeko jaia egingo dute bihar, hilak 4. Festa tolosaldeko 10 urtetik beherako neska-mutil guztientzat izango dela argitu dute, eta guztiak gonbidatu dituzte parte hartzera. Jaia San Frantzisko ibiltokian duten egoitzan izango da 16:00etatik 20:00etara, eta bertan, puzgarriak, jolas ugari, zozketak eta abar izango dira.

**ERAKUSKETAK**

- **Tolosa. Esna-bidean** erakusketak Aranburu jauregian, hilaren 14a bitarte.
- **Tolosa. Baserritik Zerkausira** argazki erakusketak Aranburu jauregian. Hilaren 21a bitarte ikusi daiteke.
- **Aldaba.** Intxaur auzo elkartek auzoko argazki zaharrak bilduz dituen erakusketak prestatu du. Irudiak urtarila bukaera bitarte ikusi daitezke, elkarteko liburutegian.

**ZINEMA**

- **Tolosa. Olentzero eta Iratxo-**

*en jauntxoa* filma, gaur 17:00etan, Leidorren.

**TXOTXONGILOAK**

- **Tolosa.** Jada eskuratu daitezke hilaren 7an Topic zentroan Angeles de Trapo taldeak eskainiko duen Dickensen *Un cuento de Navidad* lanaren *El señor Scrooge* moldaketarako sarreak. Emanaldia 18:30ean izango da, eta haurrek 4 euro ordaindu behar dute, eta helduek 7 euro. Familia ugarietan, aldiz, haurrek 3 euro ordaindu behar dute, eta helduek 5. Sarrerak Topic-eko txarteldegian, edota [www.tolosa.com](http://www.tolosa.com)-en.

**Farmaziak**

**GAUR**

- **Tolosa.** Olarreaga, I. Korreo kalea, 2. Telefonoa: 943 67 01 28.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. Telefonoa: 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

gabonetan, oparitu **hitza**ren jertsea

Helduentzako Jertsea:  
lehen **29,5 €**

orain, **eskaintza berezia**

**25 €**

Kolorea: beltza  
Gizon eta emakumeen modeloak  
Neurriak:  
• Gizonak: S-M-L-XL-XXL  
• Emakumeak: S-M-L-XL

**Noiz eta nola egin eskaria?**

• TELEFONOK: 902-82 02 01  
• POSTAZ: [harpidetza@hitza.info](mailto:harpidetza@hitza.info)

\* Jertsea probatu nahi baduzu, zaitaz HITZAREN bulegora.

**hitza**